

IRAGARKIA

Alkateak 2025eko azaroaren 5ean emandako dekretu baten bitartez Eusko Jaurlaritzak homologatutako “Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueratarako Begirale zein Zuzendari” titulua euskaraz lortzen dutenentzako dirulaguntzen oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

Eusko Jaurlaritzak homologatutako “Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueratarako Begirale zein Zuzendari” titulua euskaraz lortzen dutenentzako dirulaguntzen oinarriak

ZIOEN AZALPENA

Bergarako Udalak 2025eko urtarrilaren 27an egindako bileran onartu zuen Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025-2027. Bertan lerro estrategiko desberdinak jasotzen dira eta laugarrena da euskararen sustapena. Lerro horretako 7. ekintza da “Eusko Jaurlaritzak homologatutako “Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueratarako Begirale zein Zuzendari” titulua euskaraz lortzen dutenentzako dirulaguntzak.

Bertan adierazten da dirulaguntza emateko deialdi irekia egingo dela; beraz, helburu horrekin prestatu dira oinarri hauek.

OINARRIAK

1.- HELBURUA

Dirulaguntza hauen xedea da Eusko Jaurlaritzak homologatutako “Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale zein Zuzendari” titulua euskaraz lortzea bultzatzea Bergarako bizilagunei.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Dirulaguntza eskuratu nahi duenak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Bergaran erroldatuta egotea, ikastaroak iraun duen bitartean. Udalak ofizioz egiaztatuko du.
- 2025ean Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale zein Zuzendari titulua euskaraz lortzea, arlo teorikoa ere 2025ean amaituta.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Ogasunekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebehar fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea Bergarako Udalarekin egunean dagoela.
- Ikastaroa egin duen bitartean ikaslea izatea edo langabezian egotea.
Ikaslea dela ulertzen da ikastaroa hasi zuenean ikasle-txartela zuela edo matrikula



ordainduta zuela egiaztatzen badu.

Langabezian dagoela ulertuko da, berriz, langabezian egon bada ikastaroak iraun duen denbora guztian.

3.- FINANTZIAZIOA

Bergarako Udalak 4.000 euro bideratuko ditu 2025eko aurrekontuaren kontura dirulaguntza hauetara, honako partida honetatik: 1 3350.480.335.20.01 2025 (464).

4.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Udalak matrikularen kostuaren ordainketa diruz lagunduko du. Emango den gehienezko laguntza honakoa izango da:

- Ikaslea izanez gero edo, behintzat, ikastaroaren matrikula ordaindu zuenean ikasle izanez gero, matrikularen kostu osoaren %50a.
- Ikastaroak irauten duen bitartean lanik gabe egonez gero, matrikularen kostu osoaren %50a.

Laguntzotarako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehienezko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzioan gutxituko da emango den laguntza.

5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoro Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Dirulaguntza hau eskatzeko epea hilabete batekoa izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta.

7.- ESKAERA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskaera egiteko honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza eskatzeko udalak prestatutako inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta.
- Interesatuaren izenean eskaera ordezkari batek aurkezten badu, ordezkaritza-agiria bertan zehaztutako dokumentuekin.
*Aurreko bi inprimaki horiek interesatuaren eskura egongo dira Bergarako udalaren web orrian eta Bergararren Arreta Zerbitzuan (B@Z).
- Laguntza eskatzen duen pertsonaren nortasun-agiria, egoitza-txartela edo pasaporte.
- Titulua edo bere ordezkari ziuertagiria.
- Saio teorikoak euskaraz egin izanaren agiria.
- Praktikak euskaraz egin izanaren egiaztagiria.

- Matrikularen ordainagiria.
- Ikaslea dela edo, behintzat, ikastaroaren matrikula ordaindu zuenean ikasle zela egiaztatuko duen ziurtagiria edo ikasle-txartela.
- Langabezian egon denak Gizarte Segurantzak emandako bizitza laborala, ikastaroak iraun duen bitartean langabezian egon dela egiaztatzen duena, udalari baimena era arrazoituan ukatu badio.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu, eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu:

- 1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.
- 2) Aurkezpena eragin zuen prozeduraren izendapena. Diru-laguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administraziok eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu arrazoiak emanez.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatzeko.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan eta espezifikoetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

8.- ERABAKIA

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Herritarren Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari erabakia har dezan.

Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako dirulaguntzen informazioa



publiko egingo da.

Eskaerak aurkezteko epa bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean hartuko da erabakia. Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

9.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.
- d) Bergarako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea. Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hau eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoen erabilera justifikatu aurretik.
- e) Jasotako fondoen erabilerari buruzko egiaztagiria gutxienez sei urtez gordetzea.
- f) Jasotako dirulaguntza itzultzea, horretarako arrazoiaren bat izango balitz.
- g) Ogasunekiko betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du elkarteak Bergarako Udalarekin egunean dagoela.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatze behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatze behar, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra (GSDO):
 - GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea
 - Bizitza laborala

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzeari aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:



- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.
- Gizarte Segurantzak emandako bizitza laborala.

10.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTEKO MODUA

Udalak erabakia hartutakoan diru-laguntzaren %100a ordainduko du.

11.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberarengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

12.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

13.- DIRULAGUNTZA EZEZTATZEA

Dirulaguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- a) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Diru-laguntzaren helburua, osotasunean edo partzialki, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzeari edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Oinarri hauetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

14.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza



hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziook egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

15.- OINARRI HAUEN INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

16.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan espreski zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, dirulaguntzei buruzkoa, lege hori garatzen duen erregelamendua, uztailaren 22ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra eta udal aurrekontuko araua aplikatuko dira.

17.- OINARRIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Oinarri-arau hauek onartzeko ebazpenaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsa jarri ezingo denik.

Bergara, 2025eko azaroaren 7a

Alkateak